

## 2022/2023 SICUE VADEMECUMA (2023-03-09)

### Mugikortasuna hasi baino lehen

- Eskolako Nazioarteko Harremanen Zuzendariordetzak antolatutako informazio bilera guztietara joatea
- Posta elektronikoa begiratzea ([@ikasle.ehu.eus](mailto:@ikasle.ehu.eus) eta partikularra)
- Irakurri arreta handiz [Errektoreordetza](#)ren web gunean argitaratutako instrukzioak
- Norako unibertsitatearen web gunean informazioa lortzea (bidali behar den dokumentazioa, epeak, prozedura, etab.) eta [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus)-i jakinaraztea
- Aurretiko konpromesua edukia zuzendariordearekin negoziatzea
- Aurretiko konpromesua egitea GAUR-ean eta norako unibertsitateara bidali edota eraman behar den dokumentazioa prestatzea:
  - Eskabide-orria
  - Akordio akademikoa
  - Espediente akademikoa
  - NANA
  - Beste batzuk (hizkuntza ziurtagiriak, CV, motibazio gutuna, argazkia, etab.)
- Norako unibertsitateko kontaktu-pertsonarekin harremanetan jartzea
- Ostaturatzea
- Bekak eskatzea (informazioa <http://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/dirulaguntzak>)

### Norakoan zaudenean

- Akordio akademikoa: aldaketak proposatzea ([sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus) helbidera mezu baten bidez)
- Behin betiko Akordio akademikoa bidaltzea [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus) helbidera, norako unibertsitateak sinatuta
- Egonaldi-hasiera ziurtagiria bidaltzea [sicue@ehu.eus](mailto:sicue@ehu.eus) helbidera
- Eskolaren egonaldi-hasiera galdeketa betetzea
- Sei hileko bat baino gehiago kanpoan egongo diren ikasleak: Eskolaren egonaldi-jarraipenaren galdeketa betetzea
- GrALa egitera joango diren ikasleak: proiektu-fitxa bidaltzea (ezinbestekoa Lana sisteman alta emateko)
- Urrutiko azterketa egiteko eskaera, baimendutako kasuetan, ikusi ezarritako prozedura ([esteka](#))
- Egonaldi-luzatze eskaera, ezarritako prozedurari jarraituz ([esteka](#))
- Egonaldi-murrizketa eskaera, ezarritako prozedurari jarraituz ([esteka](#))

### Zure egonaldia bukatzerakoan

- Egonaldi-amaiera ziurtagiria bidaltzea [sicue@ehu.eus](mailto:sicue@ehu.eus) helbidera
- Eskolaren egonaldi-amaiera galdeketa betetzea (esteka bidaliko da)
- Eskolako Nazioarteko Harremanen Bulegoan Akordio akademikoa originala ematea, norako unibertsitateak sinatuta, lehendabizi eskaneatuta bidali ez bada. Dokumentu hori gabe ez da baliozkotzerik egingo.
- Irakasgaiak edota GrALa baliozkotzea